



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2012KO EKAINAREN 1EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.06.01.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.,

Bertaratu ez direnak:

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Argiteri publikoa: auditoretzaren onespena.
- 3.-Gizarte eta Turismo Batzordearen proposamenak.
- 4.-Pellettikiko egokitzapenerako material erosketa.
- 5.-2011ko kontuak: aldeko txostena.
- 6.-Arantzako eskola: lurra erabiltzeko eskaera.
- 7.-Udala eta Jose Luis Goizueta Goñi jauna: trukaketa espedientea.
- 8.-Langabetuak kontratatzekeo diru laguntzari buruz.
- 9.-Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko laguntza edo gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak kontratatzekeo diru laguntza deialdia.
- 10.-Hezkuntzako murrizketen kontrako adierazpena.
- 11.-Bertiz Partzuergo Turistikoan maiatzaren 21ean egindako bileraren laburpena.
- 12.-1512-2012ko deklarazioa-mozioa.
- 13.-Alkatearen ebazpenak.
- 14.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko maiatzaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ARGITERI PUBLIKOA: AUDITORETZAREN ONESPENA.

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu zuen herriko kanpoko argiteriaren auditoretza egiteko eta TESICNOR S.L. U.enpresari esleitu zen lan hori egitea.

Ikusirik auditoretza biltzen duen lana.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) TESICNOR S.L.U. enpresaren lana onartzea eta horren faktura ordaintzea.
- 2) Dokumentazio guztia Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Garapena, Industria, Turismo eta Ingurugiro Departamentura bidaltzea.

3.-GIZARTE ETA TURISMO BATZORDEAREN PROPOSAMENAK.

Koldobike Gorostiza andreak azaldu ditu Batzordearen proposamenak: kalean zinea botatzea, merkatu txikiak egiteko hilean behin, hitzaldiak ematea...

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1)Gaiak gehiago aztertzea erabakiak hartzeko.

4.-PELETTIKIKO EGOKITZAPENERAKO MATERIAL EROSKETA.

Koldobike Gorostiza andreak aipatu du Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko umeen eskolak arautzeko baldintzak prestatzen ari dela eta horrek errastuko duela gaia.

Aipatu du eskatu dituela Pellettikiko bainuontzia eta komuna ttikiak aldatzeko aurrekontuak eta horiek lehentasuna dutela bere ustez.

Alkateak erran du hobe izanen dela arau berriak argitaratu arte itxarotea eta ikusi zer eskatuko duten aldaketa egin eta nola egin ikusteko.

Halaber, eztabaidatu da ludotekaren egoera eta horren kudeaketa.

Bertzalde, lokalak Nafarroako Gobernuaren baimena lortu ahal izateko tramiteak hasiak direla aipatu du Koldobide Gorostiza andreak.

Alde batetik, Udal arkitektoei eskatuak direla ziurtatzea 28/2007 Foru Dekretuak eskatzen duena.

Bestalde, lokala elizarena denez irakurri da honek bidalitako dokumentoa lokala lagatuz eta baldintza jarritz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Elizak Pellettikiko lokala erabiltzeko bidalitako lagatzeko dokumentoa onartzea.

5.-2011KO KONTUAK: ALDEKO TXOSTENA.

Ikusirik 2011ko ekitaldiko kontuen espedientea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1)2011ko ekitaldiko kontuen espedienteari aldeko txostena ematea.
- 2)Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

6.-ARANTZAKO ESKOLA: LURRA ERABILTZeko ESKAERA.

Ikusirik Arantzako eskolak aurkeztutako eskaera, eskolan baratzea antolatzeke lurra lagatzea Udalak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

1) Arantzako eskolari frontoia ondoko lurra edo errepide ondoko lurra lagatzeko baimena ematea, umeekin baratzea antolatzeko.

2) Arantzako eskolari adieraztea frontoi ondoko lurra oso ospela dela eta, ordez, errepide ondokoa eguzkitsua.

7.-UDALA ETA JOSE LUIS GOIZUETA GOÑI JAUNA: TRUKAKETA ESPEDIENTEA.

Idazkariak adierazi du bere garaian Udalak eta Jose Luis Goizueta Goñi jaunaren artean sinatu zela irazlaien hitzarmena. Orain hori eskrituratu beharra da.

Baino gainera trukaketa egin zen Jose Luis Goizueta jaunaren 2 lur eta komunalarekin. Horren helburua izan zen partikularrak hitzarmenaren ondorioz hartzen zuen lurrari gehitu bere bertze 2 lurak; horrela, partikularra elkartzen zen eta komunala ere bat egiten zen.

Ikusirik trukaketa espediente bat hasteko eman behar diren tramiteak eta suposatzen duen gastoa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Luis Goizueta Goñi jaunari eskatzea bere adostasuna agertzea gasto guztiak Udala eta partikularra artean ordaintzeko.

8.-LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRU LAGUNTZARI BURUZ.

2012ko martxoaren 2ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 233/2012 ebazpena, otsailaren 23koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen.

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu zuen, konkretuki, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarteratzeko edo lan munduan eta gizartean txertatzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzen ari direnen artean kontratatzeke.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diru laguntza eman du pertsona bat kontratatzeke egoera horretan dagoena.

Eskaintza publikoa egin ondoren Arantzako egoera horretan pertsona bakarra da: Juan M.Telletxea Sansiñena jauna.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M.Telletxea Sansiñena kontratatzea peoi lanak egiteko eta diru laguntzak ematen duen denborarako.

9.- GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ETA ENPLEGARRITASUNA HOBETZEKO LAGUNTZA EDO GIZARTERATZE-ERRENTA JASOTZEN DUTEN PERTSONAK KONTRATATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.

Idazkariak adierazi du 2012ko maiatzaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela 153/2012 Foru Agindua, apirilaren 11koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko laguntza edo gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak kontratatzen dituzten enpresei, entitate pribatuei edo Nafarroako toki erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen.

Ondoren argitaratu da 1024/2012 ebazpena, maiatzaren 3koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza edo gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak kontratatzeagatik Nafarroako toki erakundeei eta

irabazi asmorik gabeko entitateei Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak pagatzeko diru-laguntzak arautzen dituena.

Kontuan hartuz deialdi hau interesgarria dela Udalak langile bat kontratatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia aztertzea gizarte zerbitzuetako langileekin diru laguntza eskatzeko.

10.- HEZKUNTZAKO MURRIZKETEN KONTRAKO ADIERAZPENA.

Ikusirik Gobernuko murrizketen kontrako adierazpena:

“Espainiako Gobernuak Hezkuntza Publikoaren inguruan hartu berri dituen neurrien aurrean, gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Kalitatezko Hezkuntza Publikoa ez da bermatuko irakasleen ordutegiak eta klaseko ratioak haundituz ezta bestelako neurri kaltegarriak aplikatuta ere.

Orain arte Nafarroan etorkizunaren zutabe nagusietako bat Hezkuntza Publikoa izan da eta aurrerantzean ere, hala izaten jarraitzea nahi dugu.

Horregatik, eskatzen diogu Hezkuntza kontseilariari, Iribas jaunari, Nafarroak dituen eskumenetan oinarriturik, ez ditzala indarrean jarri gobernu zentraletik hartutako erabakiak.

Gure etorkizuna, gure ikasleena eta Nafarroaren etorkizuna jokoan dagoelako Hezkuntza Publikoa zaindu behar dugu.

ETORKIZUNAREN ALDE.

NEURRI MURRIZTATZAILERIK EZ.”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako adierazpena onartzea.

2) Akordio hau Arantzako eskolari jakinaraztea.

11.- BERTIZ PARTZUERGO TURISTIKOAN MAIATZAREN 21EAN EGINDAKO BILERAREN LABURPENA.

Koldobike Gorostiza andreak adierazi du Bertizko Partzuergo Turistikoak dituen arazo ekonomikoari irtenbide bat emateko bilera egin zela maiatzean bere garaian Partzuergotik atera ziren udaleekin: Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elgorriaga.

Azaldu du bileraren edukia eta adierazi du hurrengo bilera ekainaren 6an izanen dela.

Gaineratu du epe bat jarri dela udal hauek bueltatzeko: 2012ko iraila.

Denek jakinaren gainean gelditu dira.

12.- 1512-2012KO DEKLARAZIOA-MOZIOA.

Ikusirik Nafarroa konkistatu zuenetik urtemuga dela eta aurkeztutako mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udalak, Nafarroako Konkistaren 500. urtemuga honetan, eta Durango, Gernika zein hainbat euskal udalerrien bonbardaketetatik 75 urte pasa direnean, gure herriaren memoria historikoa bizirik mantentzeko eta sustatzeko beharra aldarrikatzen du. Ildo horretatik, Udal honek sektore batzuek gertaera historiko horietaz irakurketa okerra eta manipulatu salatzen du.

2) Arantzako Udalak Espainiako Estatuari dei egiten dio Nafarroari eta Euskal Herri osoari 1512ko Konkistan eta 1936-39ko altxamendu faxistan eragindako kaltearen aitortza egitea; eta halaber eskatzen dio Nafarroak eta Euskal Herri osoari herri gisa dagozkion eskubideak errespetatzea, Euskal Herria eta Espainiaren artean mendez mendez luzatu den



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

gatazka politiko odoltsuari behin betiko konponbide demokratikoa eraikitzeko urratsak eginez.

3) Arantzako Udalak gertaera haiek izandako ondorio sozial zein politikoak aintzat hartzeko beharra adierazten du. Ildo horretatik, Nafarroako, Euskal Herri osoko jendarteak etorkizunari ateak irekitzeko garaia dela uste du, eta euskal jendarteak bere etorkizunaz libreki hitz egin eta erabakitzeko eskubidea duela aitortzen du. Era berean, Udal honek eskubide horren alde jarduteko bere konpromisoa adierazten du.

4) Udal honek uztailearen 25ean Nafarroako ikurra masta erdiraino eskegita jarriko du, Iruñea konkistatu zuten 500 urte betetzen direlako.

5) Udal honek Nafarroa Bizirik herri ekimenaren lanarekin bat egiten du. Eta bere laguntza eskeintzen dio: ekimenaren sinboloa udaletxean jarriz eta antolatu daitezkeen bestelako ekimenetan parte hartzeko borondatea azalduz.

6) Arantzako Udalak ekainaren 16an Nafarroa Bizirik plataformak Iruñean deitutako martxa nazionalarekin bat egiten duela adierazten du. Era berean, herritarrei dei egiten die bertan modu aktiboan parte har dezaten.

7) Arantzako Udalak, parte hartuko du aipatutako martxan, ordezkari bat baten bitartez eta herriko izena eramanez.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 34etik 50. arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik ondorengo gai hauek aztertu dira:

14.-AUZOLANEI BURUZ.

Auzolanen arduraduna den Inaxio Madariagak aipatu du auzolana egin ez dutenen zerrrenda.

Kontuan hartuz etxe bakoitzara bidali dela abisoa aukera emanez auzolana egiteko edo ordaintzeko eta maiatzaren 30a jarri zela azken eguna bezala.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Auzolana egin edo ordaindu ez duten etxe guztieei 45,00 euro kobratzea egun bakoitzaz.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Jaime Iturria Mitxelena jn.



